

# PRENTSAURREKOA: HBS BERRIAREN LEHEN BALORAZIOA

Hilabete igaro da Hondakin Bilketa Sistema berriaren proba pilotua martxan jarri zenetik.

Hori dela eta, joan zen astean, abenduaren 3an, hondakinen mahaiko kideek eta euren borondatez hurbildu ziren zenbait herritar eta merkatarik, sistema hobetzeko proposamenak eta intzidentziak aztertu eta lehen balorazio bat egin zuten.

Ondoren, bilera horretan esandakoak eta informazio bulegoan jasotako iradokizunak herritar guztiekin konpartitzeko asmoz, bilera ireki bat antolatu zen abenduaren 10erako, Ibarraundin museoa, arratsaldeko 18:30ean.

Horrela bada, hurrengo urratsa intzidentziei erantzutea izango da, baina ahaztu gabe zein den lortu nahi den azken helburua, beti esan izan dugun bezala, helburuak baitira garrantzitsu eta ez sistema.

## AKORDIOA

Lehenik eta behin, akordioaren puntuak gogorarazi nahi ditugu:

1. Gaikako hondakin bilketan %70era heltzea
2. Organikoaren bereizketa derrigorrezkoa izatea
3. Errefusari atea ixtea
4. Beharrezko kanpainak egitea aukeratutako sistemak ondo funtziona dezan

Helburu horiek lortzeko, hondakin bilketa sistemaren (HBS) proba pilotua martxan jarri zen Intxaurtxueta eta San Pedro auzoetan, eta Gaztañadui kalean.

Hurrengo fasean (2014ko otsaila/martxoan) sistema berria herri osoan ezarriko da, eta horretarako, aldez aurretik baloratu beharra dago proban jarri den sistema baliagarria den herri osorako.

Balorazio hori egiteko ondoko 3 aspektuak aztertuko ditugu:

1. Bilketa datuak.
2. Bildutako organikoaren kalitatea.
3. Parte-hartze maila, hau da, sistema erabiltzen duten herritar kopurua.

Lehen hilabeteari buruz mahaiaik egindako balorazioa ondorengoa da:

## DATU OROKORRAK

Herritar eta komertzioen %82,56ak jaso ditu kuboak.

Bilketa datuak (azaroko 25 egun): hurrengo hilabeteetan hilabete osoko datuak emango dira.

GAIAK	%
ORGANIKOA	%63,17
PAPERIA	%11,75
ONTZI ARINAK	%11,83
ERREFUSA	%8,06

\* Pardelak aparte jaso dira, bilketa orokorrarekin.

**GAIKAKO BILKETARI DAGOKIONEZ,**

biltzen den guztiaren % 70 baino gehiago gaika jasotzen da, beraz, helburua lortzen ari da. Zehazki, pardelak aparte utzita, %91,94 batzen da gaika.

### **ORGANIKOAREN BILKETARI DAGOKIONEZ,**

guztira, 4700 kg jaso dira, hau da, 6,91 kg zergadun bakoitzeko. Ondoko udalerrietako datuekin alderatuz:

- Oñati eta Antzuolan 10,54 eta 10,02 kg jaso dira
- Aretxabaletan gutxiago, 3,41 kg.

Datuok ikusita, esan dezakegu 5. edukiontzia dagoen lekuetan baino emaitza hobea lortu dugula, baina atez ateko ezarrita dagoen herrietako baino baxuagoa. Ondorioz, nahiz eta datua positiboa izan, hobetzen jarraitu beharra dago; izan ere, gure helburua da organikoaren sailkapena derrigorrezkoa izatea, baina aurrerapausoak eman badira ere, garbi dago herritar guztiak ez dabiltzala edukiontzia marroia erabiltzen.

Jasotakoaren kalitateari dagokionez, lehen asteetan hondakin desegoki asko zen organikoan, eta biltzaileek lan handia egin behar izan zuten edukiontzietatik poltsak e.a. kentzeko. Zergadunei eskutitz bat bidali zaie ontzi bakoitzera bota beharrekoaren inguruko informazioarekin, eta edukiontzietan bertan ere kartelak jarri dira. Behin hori eginda, organikoaren kalitatea asko hobetu da eta joera hori mantentzea izango da datozen hilabeteetarako erronka. Organikoaren bilketa hobetzen ari dela ikusirik, aurrerantzean edukiontzika bilduko dira datuak, edukiontzia komunitarioen sistema balidatze aldera.

### **PARTE HARTZEARI DAGOKIONEZ,**

jasotako paper eta ontzi arin kopurua ere esanguratsua da: zergadun bakoitzeko 1,85 kg paper eta 1,29 kg ontzi arin jaso da 25 egunetan. Dena den, datuek esaten digute hori baino askoz gehiago sortzen dugula, eta ondorioz, hobetze bidean lan asko dago oraindik egiteko.

### **ERREFUSA**

Jasotako errefus kopuruaren datua positiboa da, zergadun bakoitzeko ez baikara kg batera ere iristen. Beraz, errefusari atekar ixtaren helburua betetzen ari gara.

### **HEMENDIK AURRERA**

- **ORGANIKOAREN BILKETA:** Kalitatea hobetzen ez bada, sistema ez da ontzat emango, eta modu individualizatuago batera joko da 2014ko martxoan
- **BILKETA ETA ERABILERA**
  - Gaizki ateratako hondakinak ez dira jasoko, dagokion egunean eta ongi sailkatuta atera arte.
  - Kanpaina bat martxan jarriko da hondakinen sailkapena eta sistemaren funtzionamendua hobetzeko.
  - Sistema edozein delarik ere, errefusari atekar ixten dizkion eta organikoa bereiztera derrigortzen duen sistema bat ezarriko da herri osorako. Azterketa teknikoak martxan daude. Informazio bilerak egingo dira urtarria eta otsailean.
  - Zabor edo hondakin turismoa: kontrako kanpaina dagoelako edo jendeak sistema erabili nahi ez duelako, baina esan genezake hondakin turismo esanguratsua dagoela. Izan ere, zergadun kopuruaren proportzioan, auzo hauetako hondakin kopurua handiagoa izan beharko litzateke. Horregatik, begi bistakoa da herritar batzuek beraien poltsak beste edukiontzia batzuetara eraman dituztela oinez edo kotxez, baina ez bakarrik gaikako edukiontzietara, baita edukiontzia berdeetara ere. Hori ekiditeko, hondakin bilketa sistema herri guztira zabaldu beharko litzateke, kontuan izanda

sistema edozein delarik ere organikoa bereizi eta errefusari atea itxi behar dizkiola. Hori 2014ko martxorako aurreikusita dago eta dagoeneko abian dira azterketa teknikoak; urtarrila eta otsaila bitartean informazio bilerak deituko dira gainontzeko auzoetako herritarrentzat.

## Intzidentziak eta ekarpenak

Informazio kanpainak: sistema ezarri eta lehen egunetan jende mugimendu handia eta dei asko jaso ziren informazio bulegotan herritarren kezkei erantzuteko. Gainontzean, 3 tailer antolatu dira hondakinak sailkatzen eta sistema ondo erabiltzen erakusteko, eta baita prebentzio kanpaina bat ere birziklatzeko materialein Gabonetako apaingarriak egiteko. Horrez gain, gogorarazi nahi dugu informazio bulegoak irekita jarraitzen duela astelehenetik ostiralera, goiz eta arratsaldez, Ibarraundi museoa, eta herritarrek bertara hurbildu daitezkeela bilketa sistemaren funtzionamenduari buruzko zalantzak argitzera.

## KONTRAKO KANPAINA

Uste dugu moduak eta moduak daudela hondakin bilketa sistemaren aurkako kanpainak egiteko, eta Eskoriatza denona denez, errespetua eskatu nahi dugu. Ez zaigu zuena iruditzen zakarrontziak hondakinak uzteko puntu bezala erabiltzea, eta erabiltzekotan, ondo erabil daitezela behintzat (ez organikoaren poltsak botatzeko, adibidez). Eta hondakinen kontura protestan ari bagara, ez dugu bidezkotzat jotzen protesta egin eta gero plaza inguruko lurra pegatinaz eta paperez beteta uztea, hori ez baita “garbi” jokatzea. Ez eta gainontzeko herritarren kubo, edukiontzia eta pegatinak saboteatzen ibiltzea ere. Protesta bai, baina berriz diogu, moduak eta moduak daude.

Abenduaren 10ean, plataformak egindako ekintzengatik, zenbait herritarrek ez zuten sartzerik izan udalak antolatutako informazio bilerara. Hori dela eta, informazio guztia idatziz helaraziko zaie herritarrei.

## UDALA

Azkenik, adierazi nahi dugu Udal bezala pozik hartu dugula errauskailua ez egitearen albistea, hondakinak sailkatuta jasoz gero ez baitago zertan erre (ezta balorizatzeko ere!), eta horrela errauskailuak sortzen dituen hondakin kutsakorrak ekidin egiten baitira. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Batzar Nagusiei dei egiten diegu hondakinak birziklatzeko beharrezko azpiegiturak lehenbailehen gara ditzaten, ahalik eta azkarren itxi daitezen Gipuzkoan oraindik existitzen diren zabortegiak, 2016 urtetik aurrera debekatuta egongo direnak.

Eskerrik asko sistema erabili eta gauzak ondo egiteko ahalegina egiten zabiltzaten guztioi. Eskerrik asko Udalaren eta ingurumenaren izenean.

# RUEDA DE PRENSA: PRIMERA VALORACIÓN DEL NUEVO SISTEMA DE RECOGIDA DE RESIDUOS

La prueba piloto del nuevo sistema de recogida de residuos está en funcionamiento desde hace un mes.

La semana pasada, el 3 de diciembre, los miembros de la mesa de residuos y algunos vecinos (3) y comercios (3) que acudieron voluntariamente hicieron una primera valoración, y con la intención de compartirlo con los eskoriatzarras, se organizó una reunión abierta en el museo Ibarraundi para el día 10 de diciembre, a las 18:30.

En la reunión celebrada el 3 de diciembre se analizaron las incidencias observadas y se propusieron algunas mejoras para el sistema. Todo ello, más las aportaciones recogidas a través de la oficina de información es lo que se iba a contrastar con los vecinos en la reunión del día 10.

Durante las próximas semanas intentaremos dar respuesta a dichas incidencias con el fin de alcanzar los objetivos propuestos, pues como decimos siempre, lo importante son los objetivos y no el sistema.

## ACUERDO

En primer lugar, queremos recordar los puntos del acuerdo:

1. Alcanzar un 70 % en la recogida selectiva de residuos
2. Obligatoriedad de separar el orgánico
3. Cerrar las puertas a la fracción rechazo
4. Realizar las campañas que sean necesarias para que funcione bien.

Con ese propósito, se puso en marcha la prueba piloto de recogida selectiva de residuos en los barrios Intxaurtxueta, San Pedro y Gaztañadui.

En la siguiente fase (febrero/marzo de 2014) se implantará el nuevo sistema en todo el municipio, y previamente hay que valorar si el sistema de prueba es válido para toda la localidad. Para realizar dicha estimación se han tenido en cuenta 3 aspectos:

1. Datos de la recogida (esto es, el nivel de recogida selectiva)
2. La calidad del orgánico recogido
3. Nivel de participación, esto es, número de vecinos que utilizan el sistema.

La valoración realizada por la mesa sobre este primer mes es la siguiente:

## DATOS GENERALES

El 82,56 % de los vecinos y comercios han recogido sus respectivos cubos.

Datos de la recogida (25 días de noviembre): en los siguientes meses se darán los datos del mes entero.

MATERIA	NOVIEMBRE
ORGÁNICO	63,17 %
PAPEL	11,75 %
ENVASES LIGEROS	11,83 %

<b>RECHAZO</b>	<b>8,06 %</b>
----------------	---------------

\* Los pañales se han recogido aparte, con la recogida general

## **EN LO QUE RESPECTA A LA RECOGIDA SELECTIVA**

Más del 70 % de lo que se recoge, se recoge de manera selectiva; por lo tanto, se está consiguiendo el objetivo. Concretamente, sin contar la recogida de pañales, se alcanza el 91,94 %.

## **EN LO QUE RESPECTA A LA RECOGIDA DEL ORGÁNICO**

En lo que respecta al orgánico, se ha recogido un total de 4.700 kg, esto es, el equivalente a 6,91 kg por contribuyente. Si comparamos los datos con los municipios cercanos:

- En Oñati y Antzuola se recogen 10,54 y 10,02 kg respectivamente.
- En Aretxabaleta, menos, 3,41 kg

De estos datos podemos deducir que el resultado es mejor que con el 5º contenedor, pero menos que en los municipios donde está implantado el puerta a puerta. Por ello, aunque el dato es positivo, tenemos que seguir mejorando, pues nuestro objetivo es que la clasificación del orgánico sea obligatorio, y aunque se observen avances, se ve que no todos los vecinos están utilizando los contenedores marrones.

En cuanto a la calidad de lo que se está recogiendo, en las primeras semanas se recogió mucho impropio en el orgánico, y los trabajadores debieron de realizar un gran trabajo para quitar de los contenedores las bolsas y el resto del material inadecuado. A los contribuyentes se les ha enviado una carta para informarles sobre lo que hay que depositar en cada recipiente, y se han colocado carteles en los propios contenedores. Tras ello ha mejorado de forma notable la calidad del orgánico, y el reto para los meses siguientes será mantener dicha tendencia. En adelante, y vista la mejora de la recogida del orgánico, los datos se recogerán por contenedores de cara a validar el sistema de contenedores comunitarios.

## **EN LO QUE RESPECTA A LA PARTICIPACIÓN**

La cantidad recogida de papel y envases ligeros es significativa: por cada contribuyente hemos recogido en 25 días el equivalente a 1,85 kg de papel y 1,29 kg de envases ligeros. A pesar de ello, los datos nos dicen que producimos mucho más que lo que recogemos, y por lo tanto, debemos de seguir trabajando para mejorar los datos.

## **RECHAZO**

El dato de la cantidad de rechazo recogido es positivo, ya que no llegamos ni a un 1 kg. por cada contribuyente. Por lo tanto, estamos cumpliendo el objetivo de cerrar las puertas al rechazo.

## **DE AHORA EN ADELANTE**

- **RECOGIDA DEL ORGÁNICO:** si no se mejora la calidad, no se validará el sistema, y se instaurará uno más individualizado en marzo del 2014.
- **RECOGIDA Y UTILIZACIÓN**
  - No se recogerán los residuos que se saquen mal, hasta que no se clasifiquen bien y se depositen el día indicado.
  - Se pondrá en marcha una campaña para mejorar la clasificación de los residuos y el funcionamiento
  - Implantación en todo el municipio de un sistema, cualquiera que sea, que cierre las puertas al rechazo y obligue a separar el orgánico. Los estudios técnicos están en

- marcha. Las reuniones informativas se realizarán en enero y febrero.
- Turismo basura o de residuos: podemos decir que existe un significativo turismo de basura, ya sea porque hay una campaña en contra o porque no se quiere utilizar el sistema. En relación al número de contribuyentes, la cantidad de residuos que se deberían de producir en esos barrios debería de ser mayor. Por ello, se ve que algunos vecinos llevan sus bolsas de basura a pie o en coche a otros contenedores, y no sólo a los contenedores selectivos, también a los contenedores verdes. Para evitarlo, debería de ampliarse a toda la localidad un sistema de recogida de residuos que cierre las puertas al rechazo y separe el orgánico, sea cual sea el sistema que se valide. Esto se hará en marzo del 2014; de momento, y ya se han comenzado a realizar los estudios técnicos pertinentes, y en enero y febrero se convocará a los vecinos de los demás barrios a reuniones informativas.

## Incidencias y aportaciones

Campañas de información: los primeros días en los que se implantó el sistema, la afluencia al servicio de información fue grande y se recibieron numerosas llamadas telefónicas para responder a las dudas de los vecinos. Se han organizado 3 talleres para enseñar a clasificar correctamente los residuos y usar debidamente el sistema, y además, se ha realizado una campaña de prevención para realizar adornos de navidad con material reciclable. Queremos recordar que esta oficina de información continúa abierta de lunes a viernes, mañana y tarde, en el museo Ibarraundi, y que se puede consultar cualquier duda sobre el sistema de recogida.

## CAMPAÑA EN CONTRA

Creemos que existen formas y formas de realizar campañas en contra del sistema de recogida de residuos, y como Eskoriatza es de todos, queremos pedir respeto. No vemos bien que se utilicen las papeleras como punto para dejar los residuos, y, si se utilizan, que se utilicen bien; por poner un ejemplo, que no se depositen bolsas de orgánicos. Si se protesta contra los residuos, no nos parece adecuado que tras la protesta se deje el suelo de la plaza y sus alrededores lleno de pegatinas y papeles, pues eso no es jugar “limpio”. Ni tampoco sabotear los cubos, contenedores y pegatinas de los demás vecinos. Protestar sí, pero lo volvemos a decir, hay formas y formas.

También hay que añadir que algunos vecinos que acudieron a la reunión del día 10 a escuchar la información del Ayuntamiento, no lo pudieron hacer debido a las acciones realizadas por la plataforma. Por ello, se hará llegar a los vecinos toda la información por escrito.

## AYUNTAMIENTO

Por último, nos queda decir que como Ayuntamiento hemos recibido con satisfacción la noticia de que no se construirá la incineradora, ya que si se recogen los residuos clasificadamente no hay por qué quemarlos (ni para valorizarlos), y así se evitan los residuos contaminantes que se producen. Además, hacemos un llamamiento a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a las Juntas Generales para que desarrollen cuanto antes las infraestructuras necesarias para reciclar los residuos, y se cierran cuanto antes los vertederos que todavía existen en Gipuzkoa, y que estarán prohibidos a partir del 2016.

Nuestro más sincero agradecimiento a todos los que utilizáis el sistema y os esforzáis en hacer las cosas bien. Muchas gracias en nombre del Ayuntamiento y del medio ambiente.